

Bidaiatzeko aholkuak

Zure oporrez eta bidaietz gorabeherarik gabe gozatu ahal izateko, ondorengo pausuak jarraitzea gomendatzen dizugu:

Bidaiatu aurretik

- ✓ Pasaportea eta NAN indarrean izan.
- ✓ Bisa. Bisa eskatzen duten herrialdeak kontsultatu. [Informazio gehiago](#).
- ✓ Txertoak. Herrialde bakoitzeko derrigorrezko txertoak ezagutu behar dituzu. [Herrialde bakoitzeko osasun egoera](#) eta [Nazioarteko txertaketa zentroak](#) kontsultatu.
- ✓ Aseguru medikoa. Bidaiatzerako orduan gorabeherak gertatu daitezkeela kontuan hartuz, aseguru mediko bat kontratatzea gomendagarria da. Badira helmuga herrialdean sartu ahal izateko aseguru eskatzen duten herrialdeak (Kuba eta Errusia, esaterako). Aseguru kontratatzea garrantzitsua da, izan ere, poliza gehienek hegaldien atzerapen edo bertan behera uztearen gastuak barne hartzen dituzte, modu honetan bidaiariak ez du horrelako ezustekorik ordainduko. Gogoan izan enbaxadek eta kontsuletxeek ez dutela bidaiaria edo osasun gasturik ordaintzen.
- ✓ Europan zehar bidaiatzeko [Europako Osasun Txartela](#) beharrezkoa da: 2 urteko iraupena dauka eta ondorengo herrialdeetan erabili daiteke: Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Txipre, Kroazia, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Islandia, Italia, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxenburgo, Malta, Norvegia, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Errumania, Suedia eta Suitza.
- ✓ Atzerrian autoa gidatzeko asmoa baduzu, dokumentazio eta aseguru bereziak beharko dituzula jakin behar duzu, esaterako [nazioarteko gidabaimena](#).



Europar zehar gidatzeko bertako estatuetako trafiko arauak ezagutu behar dira, horretarako ondorengo gunea kontsultatu dezakezu: [Europar gidatzea](#).

- ✓ [KGLMko bidaiarien erregistroa](#). Bisitatzen den herrialdean larrialdi egoerarik ematekotan ministerioak datu hauek erabiliko ditu erregistratutako bidaiariekin kontaktuan jartzeko. Gainera, erregistroak berak gertuen dituzun enbaxada eta kontsuletxeak mugikorrera bidaliko dizkizu mezu bidez.
- ✓ Zure oporretan zer eguraldi egingo duen jakin nahi baduzu ondorengo web guneak kontsultatu ditzakezu:
 - * Meteoalarm web gunea: <https://www.meteoalarm.eu/>, Europako edozein tokitan espero den muturreko eguraldiari buruzko alertak eskaintzen ditu.
 - * Munduko Meteorologia-informazio Zerbitzuaren iragarpenen web gunea: <http://wwis.aemet.es/es/home.html>, munduko edozein tokiko hainbat egunerako eguraldi-baldintzak kontsultatzeko aukera eskaintzen du.

Bidaiatzeko aholkuak

- ✓ Atzerrira bidaiatu aurretik zure mugikorreko *roaming*-a aktibatuta duzula eta ordaintzeko erabiliko dituzun txartelek atzerrian murrizketarik ez dutela egiaztatu.
- ✓ Dirua leku desberdinetan gorde, lapurtzen badizute eta dirurik gabe geratzen bazara gogoan izan PayPal bidez munduko edozein tokitik zure familiari dirua eskatzeko aukera duzula.
- ✓ Hizkuntzarekin arazorik baduzu gogoratu liburu-dendetan saltzen dituzten elkarrizketarako gidaliburuak erabilgarriak direla.
- ✓ Oroigarriak erostekotan, aduanan arazorik ez izateko, babestutako espeziekin eginak edo antzinako gauza ilegalak ez direla egiaztatu beharko duzu.
- ✓ Galdu nahi ez dituzun ondasunak zurekin eramanez hegazkinean: betaurrekoak, lentillak, kamera edo ekipo informatikoak, adibidez.
- ✓ Diru-zorroan argazki pare bat eramatea erabilgarria izan daiteke aduanan ustekabeko bisa bat egiteko orduan.



- ✓ Badaezpada ere, zure dokumentu guztiak hodeian eskaneaturik gorde (pasaporte, gidabaimena, aseguru medikoa...).
- ✓ Eraman zurekin behar izango dituzun medikamentuak, errezetarekin ahal bada arazorik ez izateko.
- ✓ Maleta prestatzeko aholkuak:
<https://www.youtube.com/watch?v=MaTIO9JKkig>
- ✓ Aireportuan luzaroan egon behar baduzu [mapa hau](#) kontsultatu dezakezu, non aireportuetako wifi-sareak eta hauen pasahitzak jasotzen diren.

Online bilatzaileak

- ✓ Hegaldi bilatzaileak
 - * [Skyscanner](#), [Edreams](#), [Kayak](#), [Momondo](#), [Trabber](#), [Atrapalo](#), [Jetcost](#), [Rastreator](#) eta [Lastminute](#) : hegaldiak konparatzen dituzten web gune hauetan hegaldi merkeen eskaintzak hilabeteka edo urteka bilatzeko aukera izango duzu.
- ✓ Ostatu hartzeko bilatzaileak
 - * [AirBnb](#): logela, pisua edo etxe osoa alokatzeko aukera eskaintzen du.
 - * [Hostel World](#): munduan zehar bidaiatzen duten motxiladunentzako aterpetxea aurkitzeko bilatzailea da.
 - * [Booking](#): aterpetxeak eta hotelak bilatzeko.
 - * [Couchsurfing](#): mundu osoan doako ostatua bilatzeko plataforma.
 - * [House Carers](#), [Home-sitters](#), [Luxury House-sitting](#), [Mind my house](#) edo [Trustedhousesitters](#): doako ostatua eskaintzen dute maskotak zaintzearen truke.
- ✓ Garraio bilatzaileak
 - * [Hitchwiki](#): mundu osoan zehar auto-stop egiteko online gidaliburua.
 - * [Blablacar](#): autoz bidaiak partekatzeko. Bidaiaren bat egiten duzunean zure autoan eserlekuak eskaini ditzakezu edota beste gidarien autoan bidaiatu dezakezu.



- * [Amovens](#): partikularren artean autoa partekatzeko edo alokatzeko.
- * [Uber](#): taxia behar baduzu, zure bila etorri daitezela, gidariaren izena edo autoaren matrikula eskatu ditzakezu, gainera, ibilbidea zuzenean zure mugikorrean ikusteko aukera izango duzu.
- * [Grab](#). Uber bezalakoa baina batez ere Asian erabiltzeko.

Intereseko web orriak eta blogak

["Viajes Internacionales y Salud: situación a 1 de enero de 2012"](#) – Liburu osoa.

[Autobusez bidaia luze bat jasateko 7 aholku](#)

[Autobusez bidaia luzeak egiteko aholkuak.](#)

[Bakarrik bidaiatzeko 25 aholku.](#)

[Bidaia bloga egiteko 10 aholku](#)

[Bidaiatu nahi dut: aholku praktikoak.](#)

[Bidaiatzeko 100 aholkurik hoberenak.](#)

[Bidaiatzeko motxila aukeratu eta prestatu: gutxi eraman.](#)

[Bidaiatzeko motxila prestatzeko aholkuak.](#)

[Bidaiatzerakoan dirua eramateko 3 modu.](#)

[Bidaiatzerakoan ematen diren ohiko 8 iruzur eta hauek ekiditeko modua.](#)

[Busca blogs de viajes: bidaia blogak lurraldeka antolatuta](#)

[Hegaldi luze bat jasateko 10 aholku.](#)

[Instragamen bloga egiteko 10 aholku](#)

[Kontaktua mantendu bidaiatzen duzun bitartean.](#)

[Lagunekin arazorik gabe bidaiatzeko aholkuak.](#)

[Merke bidaiatzeko trikimailuak: bidaiari guztiek jakin beharko luketena.](#)

[Zure ametsetako bidaia hastera doa! Bakarrik bidaiatzeko 15 aholku.](#)

[Zure bizitza betirako aldatuko duten bidaiatzeko 41 aholku.](#)

Oharra: informazio guztia ondorengoetatik jaso da: Mundo-Nomada.com, Osasun Ministerioa, Giza Zerbitzuak eta Berdintasuna, Kanpo Gaietarako eta Lankidetzarako Ministerioa eta aipatutako blogak.

2019ko otsaila